



LEHEN HEZKUNTZAKO 2. zikloa: IPUIN SARITUA

PEPEREN MAKILA. Neike Martiartu Barroso

Orain dela urte asko, Donostian Pepe izeneko zientzialari bat bizi zen. Peperen lagunik hoberena Uztai zen. Uztai oso ume langilea zen eta bihotz onekoa ere. Pepe ere oso langilea eta azkarra zen, beste zientzialariak bezala. Zortea ematen zion makil bat zuen, berarentzat oso baliotsua, baina Uztai askoz baliotsuagoa zen.

Egun batean, Pepe esperimentu bat egiten ari zela, Uztaiak atea ireki eta, nahi gabe, esperimentua makilari bota zion. Bat-batean makilak salto egin zuen eta esan zuen:

—Kaixo, ni Mali-Makil naiz, zortea ematen duen makila.

Uztai izutu zen, baina gero pentsatu zuen seguro ona zela eta Mali-Makilekin jolastera joan zen. Baina ez zekien gezurra esaten ari zela, Malik mundua menperatu eta gizaki guztiak bere zerbitzariak izatea nahi zuela.

Gauean Mali laborategian sartu eta dena kontrolatzerko kasko bat egin zuen. Baina Malik ez zekien ateko zirrikitutik Pepe begiratzen ari zela. Pepek, segituan, esan zion Uztairi:

—Mali ikusi dut laborategian eta esan du mundua menperatuko duela!!

—Baina nola? Mali oso jatorra da eta!!— esan zuen Uztaiak.

Baina ez zen egia, Mali iruzurti bat zen. Uztaiak ez zekien zer egin, baina bat-batean Pepek ideia bat izan zuen:

—Badakit!! Jakingo ez bagenu bezala egingo dugu.

Mali atean zegoen eta dena entzun zuen. Berehala plan bat pentsatu zuen:

—Kaskoa jarri eta aginduko diot Uztai eskaileretatik botatzeko eta gero Pepe. Horrela ez dira nire kontuetan sartuko eta mundua menperatuko dut!! Ja!ja!ja!...

Baina Pepek Uztai hartu zuen eta Maliri kaskoa kendu eta apurtu zuen.

Pepek beste esperimentu bat egin zuen, makilari bota zion eta makila lehen bezala geratu zen.

Handik aurrera, Uztaiak atea poliki irekitzen du eta Pepek ez ditu esperimentuak atearen ondoan uzten.

Egia ala gezurra? Begi bien artean, sudurra.

